

## **KONTROL MOZIOA**

### **“DONOSTIAKO HISTORIA FEMINISTA, 11 HISTORIAREN BIDEZ” IKERKETA BEKA DELA ETA**

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko irailaren 19an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da

## **JUSTIFIKAZIOA**

Donostiako Udalak, 2014ko apirilaren 25ean, III. Berdintasun Plana onartu zuen. Plan hartan nahitaezko lan ildotzat hartu zuen emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa sustatzea, eta, zehazki, 5.2 puntuan, Udalak konpromiso hauxe hartu zuen: «Emakumeek hiriari eginiko ekarpenak berreskuratuko dituzten proiektuak bultzatzea».

Testuinguru horretan, 2015eko martxoan, Donostiako Udaleko Berdintasun Sailak hiriko emakumeen memoria berreskuratzeke ikerketa beka plazaratu zuen "Donostiako Historia feminista, 11 historiaren bidez" izenburupean. Haren asmoa emakumeak eta mugimendu feministak hiriari egindako ekarpenetan sakontzea, ekarpenak aitortzea eta gune publikoak ikusgai jartzea zen. Historia horiek hainbat alderdi eman behar zituzten ezagutzera; hala nola, emakumeen bizimodua, taldeen historiak eta berdintasunaren arloan edota emakumeen eskubideak lortzeko bidean izandako gertaera historikoak. Azterketa horren azken produktu gisa emaitzak nola komunikatu, eta Donostiako gune publikoan ikusgai nola jarri proposatzen zen; betiere 2016ko Europako kultur hiriburutzaren espirituarekin bat etorri (bizikidetzarako kultura, herritarren protagonismoa, eraldatzeko kultura).

2015eko maiatzean, Donostiako Tokiko Gobernu Batzordeak memoria feministaren inguruko beka bost ikerlariz osatutako talde batek egitea esleitu zuen.

Urtebete igaro da eta erregistroz jasotako idatzi baten bitartez, ikerketaren emaitzak ez direla aurreikusitakoak izan, eta proiektua gelditu eta ez publikatzea erabaki dela jakin dugu.

Ekaineko Donostiako Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektorialean gaia ez zen mahaigaineratu eta Iraileko Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean ere ez zitzaigun inongo informaziorik eman bekak izan dituen ondorioez eta prozeduraz,

nahiz eta Udal Gobernuari interpelazioa egin. Udal Gobernuak gardentasunik gabe eta gai honekiko interes falta nabarmenaz jokatzeko ari da, beraz.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

### **KONTROL MOZIOA:**

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2016ko urrian dei dezala Donostiako Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektoriala eta bertan “Donostiako Historia Feminista, 11 historiaren bidez” deituriko Bekak izan duen prozeduraren, eman dituen ondorioen eta hartu diren erabakien berri eman dezan.

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako Berdintasunaren aldeko hurrengo Kontseilu Sektorialean azaldu dezala zein asmo duen, III. Berdintasun Planean, emakumeek hiriarri eginiko ekarpenak berreskuratuko dituzten proiektuak bultzatzeko.

Donostian, 2016ko irailaren 23an

Naiara Sampedro Perez  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia